

Erabiliko ditugun komunikazio-kanalak, sare sozialak izango dira esate baterako, Instagram, Facebook... Instagrameko eta Facebookeko kontu bat zabalduko dugu interneten bidez informazioa emateko eta zalantzak argitzeko. Modu horretan hobeto ezagutuko gaituzteeta aldi berean, erraztasuna emango dute guraso edo familiekin komunikatzeko.

Gainera Durangoko leku publiko desberdinetan gure proiektuari buruzko informazioa jarriko dugu, edonorrek ikusi eta irakurtzeko aukera izan dezan. Esate baterako, supermerkatuetan (Eroski, BM, Alcampo...), hezkuntzarekin eta eskolako materialekin zerikusia duten dendetan (Folder, Kopilan, Etxebarria...), Durangoko alde zaharreko dendetan (arropa zein janari dendetan)...

Horrez gain, eskola ezberdinetako bilereta aurkeztuko gara (Atxondo Herri Eskolan, Zabalarra, Landako Eskola publikoa, Arteako eskola publikoa...) eta gurasoei Kultutekari buruzko informazioa emango diegu.